

XI. PROIEKTU DEIALDIA

POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA

Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen laguntzarekin, **Poltsiko Antzerkiaren alorrean euskarazko sorkuntza bultzatzeko hamaikagarren PROIEKTU DEIALDIA** antolatu du.

Poltsiko Antzerkiaren, eta orokorrean, formatu txikiko antzerkiaren inguruan **euskarazko lanen eskaintza urria izan ohi da**. Hala, askotan Poltsiko Antzerkiko programatzaileek arazoak izan ohi dituzte euskarazko obrak programatzeko. Errealitate hori ikusita, alor horretan euskarazko sorkuntzak bultzatzea da ekimen honen lehen helburua.

Bestalde, **kulturaren balio katearen** barruan (trebakuntza; sorkuntza; ekoizpena eta, hedapena eta ikustaldia), orokorrean **sorkuntza eta ekoizpenak** dira kultur erakundeetan gutxien jorratzen diren arloak. **Kultur Etxeen** ataletik, oinarrizko eta gertutasunezko kulturaren bideratzaile diren aldetik, argi dute, badutela zer ikusi eta zer egin **formatu txikiko sorkuntzen sustapenean**. Hala, ekimen hau sorkuntzaren eremuan egingo den lanaren **hastapena** izatea espero dute, aurrerantzean kulturaren beste arlo eta diziplinetara hedatu ahal izateko. Gauzak honela, kultur balio katearen ibilbide guztia jorratzea da bigarren helburua.

2011n abiatu zen lehen aldiz modu esperimentalean *Proiektu deialdi* hau, Euskal Kultur Erakundearekin izandako esperientzien elkartrukearen ondotik. Aurreko hamar deialdietan, 68tik gora izan dira aurkeztutako Poltsiko Antzerki proiektuak.

Kontuan hartzekoa da, era berean, **hamaikagarren deialdi** honen xedea ez dela dirulaguntza soilik, **koprodukzioa** baizik. Izan ere, aukeratutako bi proiektuen sorkuntza

eta ekoizpena laguntzeaz gain, hamaikagarren deialdi honetan landutako bi obren estrainaldia egingo da **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren** programazioaren barruan, 2021ko otsaila eta martxoa bitartean. Modu honetan, euskal antzerki sorkuntzari leiho bat ireki nahi diogu jaialdiaren barruan. Hain zuzen ere aukeratutako bi antzezlanen **4 emanaldi** egingo dira hiriko auzoetako **taberna ezberdinetan**.

Ekimen hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da erakunde publikoa eta elkarte-hiritarren arteko **elkarlana**, egitasmoaren eraginkortasuna benetan bermatu nahi bada. Hala, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin batera landutako proiektua da.

Proiektu deialdi honen informazio guztia (oinarriak, baldintzak eta abar), Donostia Kulturako webgunean dituzue.

Informazio gehiago: [Poltsiko Sorkuntza: Donostia Kultura](#).